



Andoaingo Santa Zezilia zikloa hastera doa

Arkaitz Mendoza orkestra zuzendariari elkarrizketa,
azaroaren hogeiko emanaldiaren atarian 2/3



Sarobe antzokia profesionalen ahotan

Losada antzerki zuzendaria, Muruamendiaraz dantza
zuzendaria, Agirregomezkorta antzerki tailerreko
zuzendaria eta Lussarreta eta Jauregi teknikariak / 8-9



**Alderdi abertzaleak
onik atera dira
azaroaren 10eko
Hauteskunde
Orokorretan / 6**



**Iñaki Arregi Moraza
Andoaingo
euskaltzale
eta ekintzailearen
heriotza / 4-5**



**Aita Larramendi
ikastolako lehen ikasle
eta irakasleen bilkura,
eraikin eraberrituaren
irekiera ekitaldian / 7**

Aiurri.eus webgunea, eskualdeko orainkaria

**Argazkiak, bideoak,
agenda, albisteak,
azken ordukoak...**

Xabier Lasa ANDOAIN

"Gizon armaduna (Bakearen aldeko Meza)" izenburuko obra eskainiko du Orkestrak San Martin parrokian. Datorren asteazkenean izango da –azaroak 20–, iluntzeko 19:30ean hasita.

Zer da "Gizon armaduna (Bakearen aldeko meza)"?

Karl Jenkins konposatzaileak 1999an sortu zuen kontzertu bat da, Kosovoko (Jugoslavia ohia) gerra inspirazio iturri edukita. Gizakiek eragiten dituzten gerra suntsitzaileen aurkako eta biktimen aldeko aldarria da. Mezu bakezalea, unibertsala zabaldu nahi du, izan Kosovorako izan munduko beste edozein leku gatazkatsuetarako baliagarri dena. Hamairu atalez osatzen da, eta meza katoliko baten hariari jarraitzen dio, nahiz eta tartekatu beste erlijioetako zenbait elementu, esate batera, musulmandarrek Alári eskaintzen dioten otoitz bat. Izan ere, erlijioen arteko bizikidetzaren defentsa egiten du kontzertuak. Bi hizkuntza erabiltzen dira bertan, ingelesa eta latina. Aldi berean, kontzertua pantaila batean proiektatuko diren 80 irudiekin aberastuko da.

Zenbat dauka musika klasikotik?

Ez da kontzertu klasiko tipikoa. Entzuleak ez du Mozart, Brahms eta antzeko egileen musika estiloa topatuko. Filmetako soinu bandaren itxura hartzen du gehiago. Perkutsio mordoa dauka, erritmu afrikarrak... Publiko zabal bati begira sortutakoa dela esango nuke. Alde horretatik, musika zale oro gonbidatuko nuke, etor dadila lasai San Martin elizara; maiz entzungo ez duen kontzertu batera hurbilduko da, pribilegiatua sentituko da. Elizaren akustikak ere lagunduko du kontzertua goangarria izan dadin.

Musikari ugari mugituko duen kontzertua da.

40 musikari eta 50 abeslari bilduko dira. Musikarien artean, Andoaingo zenbait gazte aipatu nitzake: Maider Zapirain (Biolontxelo), Mikel Urdangarin (biolina), Jokin Jauregi eta Xabier Ucin (klarinetea)...

Kamerata Euskdivarius Orkestra dago guztiaren atzean. Urtarrilean sortu genuen, izan ere musikari asko dabil nor bere proiektua garatuz, baina badago sentazioa denak bilduko dituen proiektu berritzaile bat falta dela.

"Erljioen arteko bizikidetzaren defentsa egiten da kontzertuan"

ARKAITZ MENDOZA ORKESTRA ZUZENDARIA

Pianojolea da baina musikagintzan denetik egiten du. Kamerata Euskdivarius orkestrako zuzendari gisa bere jaioterria den Andoainera azaroaren 20an etorriko da



Arkaitz Mendoza Rodriguez orkestra zuzendaria Andoainen jaiotakoa da. AIURRI

Orkestra zuzendari batek zenbateko garrantzia dauka kontzertu batean?

Ohiko galdera izaten da, eta ulertzen dut. Mila kontu daude zuzendari bat beste batengandik bereizten dutena. Ez da gauza berbera besoekin edo begiradekin transmititu dezakezuna (indarra, soinua, intentsitatea, abiadura...). Ikasi beharreko teknikak daude, gero praktika-rekin sakontzen direnak. Karre-rarik zailena dela esaten dute. Hasteko, musikaria behar zara izan, eta instrumentu batzuk ezagutu, ez denak noski, ezinezkoa delako. Funtsezkoa da musikariak errespetatzea, eurek baitira maisuak beren instrumentuekin; zuzendariak gomen-dio bat edo beste eman diezaie-ke.

Musika kritikoa ere izan zara.

Berria egunkarian 2016az geroztik musika klasikoko kontzertuen kritikak egin izan ditut. Zorro-tza izan naiz musikari ezezagu-nekin bezainbat lagunekin, egia esatera.

Diskoa grabatu duzu, aktorea izan zara...

Harkaitz Canok eta biok "Malgua da gaua" diska argitaratu genuen, Chopinen Nokturnoak izenburuko piezak oinarri izanda. Canok poesia idatzi zuen eta nik pianoa jo. Chopinen obra erdiak jorratu genituen, eta etorkizunerako erronkatzat utzi genuen bigarren diska egitea obraren beste erdia hartuta. Niretzako opari gozagarria izan zen Canoren poesia. Aktore lana, berriz, gauza txikia izan zen; Usandizaga euskal musikagilearen rola interpretatu nuen ETBk egin zuen "Usandizaga y Ravel. Unidos por un río" dokumentalean.

Kontzertu pedagogikoen zalea zara. Zergatik?

Kontzertu bati didaktikoaren etiketa jarritz gero, denek ulertzen dugu haurrentzat behar duela izan. Baina gehiago landu behar ko litzateke helduen kultura musikala. Uste dut musikariok, eta zuzendariok batik bat, publiko helduarekin gehiago konektatu beharko genukeela.

MAIDER ZAPIRAIN, MIKEL URDANGARIN, JOKIN JAUREGI ETA XABIER UCIN ARIKO DIRA ZUZENEAN

Hurrengo urteari begira, Beethovenen bederatzi sinfonien inguruko proiektua garatzen ari naiz azken aldian. Ordu erdi pasatxo irauten duten sinfonia bakoitzarekin kontzertuak herriz herri ematea da asmoa. Kontzertuari ekin aurretik azalpenak eman nahi dira instrumentazioaren aldetik, garaiari buruzko testuingurua azalduz..

Zer ez duzu egin musikagintzan? Abestu agian?

Hortik ere igarotakoa naiz, ba! Donostiako Orfeoiko abeslaria izan nintzen gaztetan. Ahotsa dagoen instrumenturik naturalena da, eta nire ikasleei abestearen garrantzia transmititzen saiatzen naiz. Zozoa dena abesten, gero instrumentua jotzeko orduan ere zozoa izaten da normalean.

Konposatu?

Hori ez! Ez daukat irudimenik! Errespetu handia eragiten dit sormenak, eta nahiago sortzaile bikainek osatutako partiturak hartu: irakurri, sentitu eta interpretatu.

Andoainen jaiotakoa zara.

Bai, aita bertakoa dut eta ama Hernanikoa. Bertan jaio eta



Azaroaren hogeiko emanaldia prestatzeko entsegua San Martin elizan, joan den igandean. AIURRI

bertan egin nituen lehen bi urteak, baina gero Donostiara joan ginen bizitzera. Familia Andoainen daukat, eta tarteka gerturaten naiz bisitan, baina apenas daukadan haurtzaroarekin lotutako oroitzapenik.

Andoainera zenbait alditan etorri izan naiz kontzertuak ematera; gogoan daukat, esate batera, Euskaldunon Egunkariako sortzaileetako bat izan zen Joxean Lizarribarri eskainitako omenaldian parte hartu nuene-

koa. Pianoa jo nuen, Ainhoa Arteta laguntzaile nuela. "El caserio" Zarzuelarekin ere etorri nintzen, beste okasio batean. Egia esan, jaioterrian kontzertu bat zuzentzeak ilusio berezia eragiten dit.

Azaroaren 20an San Martin elizan

- Obra: "Gizon armaduna -bakearen aldeko meza".
- Konposatzailea: Karl Jenkins (Gales, 1944).
- Zuzendaria: Arkaitz Mendoza Rodriguez.
- Atalak: *L' homme armé, Otoitzarako deia; Kyrie eleison; Salaba nazazu gizon odoltsuetatik; Sanctus; Bataila aurreko abestia; Erasora!; Sugar bortitzak; Zuziak; Agnus Dei; Orain armak isildu egin dira; Benedictus; Hobe bakea.*
- Partaideak: 40 musikari eta 50 abeslari.
- Bakarlarriak: Julia Blasco, Ainhoa Zubillaga, Jose Antonio Vega, Kepa Mujika eta Rizwan Ramzan.
- Iraupena: 70 minutu.
- Ordua: 19:30. Doan.

SANTA ZEZILIA KONTZERTUAK

Kontzertu guztiak Bastero kulturgunean dira, Bakearen aldeko meza ezik, San Martin elizan dena

DOKUMENTALA Margolaria Azaroak 19, asteartea. 19:00	Bakearen aldeko meza ARKAITZ MENDOZA Karl Jenkins The Armed Man: A Mass For Peace Azaroak 20, asteazkena. 19:30	IRTEERA ARGIAK Eñaut Elorrieta - Aurrestrenaldia Azaroak 22, ostirala. 21:30
Udal Musika Eskolako Banda Azaroak 24, igandea. 12:30	Don Inorrez Azaroak 29, ostirala. 21:30	Olagain Txistularien Banda Abenduak 1, igandea. 12:00



KOMUNITATEA

IPAR HAIZEA ANDOAIN

Esne lagina



Esnea eman duten Usurbilgo amak. NOAUA

Errauskailua martxan laster jarriko dela esaten dute, eta hori baino lehenago bere zuzeneko eragin eremuan zenbait lagin jaso dira. Metal astunen metaketa eta abar ikertzeko. Lagin horien artean ama esnea aztertuko da eta Andoainen zortzi amak hartuko dute parte.

Nola enteratu zinen Andoainen laginak bilduko zirela?

Ama 1: Andoingo emaginak eman zigun ikerketa honen berri, eta animatu egin ginen. Ama 2: Egia esan, oso profesional ona da eta bere gertutasunak erabakia erraztu zuen.

Zerk bultzatu zaitu lagina ematera?

Ama 1: Pentsatzeak zerbaiteko balioko duela, alde batetik. Eta kuriositate puntu bat, bestetik.

Ama 2: Ikerketa zientifiko baterako gure aportazioa emateak eta, lehen aipatu bezala, kuriositateak.

Noiz arte duzue pentsatuta esnea ematea?

Ama 1: Ez dut ezer planeatu, momentua iristean ikusiko dugu.

"ANDOAINGO EMAGINAK EMAN ZIGUN IKERKETA HONEN BERRI, ETA ANIMATU EGIN GINEN"

Ama 2: Ni esne emailea naiz Donostiako Ospitalean, aurreko amatasunean hiru urtez egon nintzen bularra ematen. Ez dakit.

Eta analisisetan esnea kutsatzen dela frogatuko balitz?

Ama 1: Balantza gainean nire esne "kutsatua" edo hauts-esnea jarri beharko nituzke eta orduan saiatu erabakitzen zer den onena.

Ama2: Ziurrenik bularra ematen jarraituko nuke, zer konponduko nuke hauts esnea ematen? Etapa hori bukatzean nik jaten dudana berdina jango du.

Beldur zarete errauskailuarekin?

Biak batera: Bai.

Andoainen ondo birziklatzen dela uste duzu?

Ama 1: Ematen du egunetik egunera jendeak gehiago birziklatzen duela.

Ama 2: Oraindik asko dago hobetzeko.

Birziklatzen duzue?

Biak batera: bai.

Zer egingo zenuke daukagun bilketa sistema hobetzeko?

Ama1: zehatz-mehatz ez dakit baina seguru zerbaite egin dezakegula.

"IKERKETA ZIENTIFIKO BATERAKO EKARPENA EGITEAK BULTZATU NAU LAGINA EMATERA"



IRITZIA

JON UNANUE MANUEL LARRAMENDI KULTUR BAZKUNA

Egiaren itzala

Oso gizon zentzuduna zen, zuhurra, jendartean gutxi nabarmentzen zena eta inoiz ez alferrik. Nik ez nuen ezagutu Larramendi Bazkunaren lehenengo orduan, baina berehalaxe bildu zitzaigun eta geroztik beti somatu nuen bere itzala; bai itzal lasaigarria! Labordeko Mekanikarien Eskolan hezitako gizona zen, eta eskola horrek emandakoa ikusita esango nuke unibertsitate batena adina bazela jakintzan eta gizatasunean Labordek Andoingo herriari emandakoa; Inaki Arregi horren eredu, ezpairik gabe.

2002. urtean izendatu genuen bazkide aitzindari, ordurako asko baitzen gure ekimenetan euskararen alde eta herriaren alde egindakoa. Hala Jone Larrañagak zuzendu zuen *Atzoko Andoain eta andoaindarrak* argitalpenean, esate baterako, nola Udalak antolatuturiko Ahoz aho, belaneuz belauin ekimenean, edota Andoingo kale eta plaza berrien izenen proposamena landu genuenean. Azken honetan, asko izan zen Inakik bileretan gure esku jarritako informazioa, eta ez gutxi gurekin batera egindako hausnarketak.

Horrela izan zen beti; bilera deituz gero, gutxitan egingo zuen kale, beti bere eskura egon zitekeena egiteko prest,



Olazabal, Trutxuelo eta Arregi Andoingo udaletxean. AIURRI

oharrak eta iruzkinak idazteko bere txukuntasun eta zorroztasun harekin, kaligrafia zoragarri harekin... Ez zion inoiz beldurrik izan hitza emateari, konpromisoari, herriarentzat onuragarri izan zitekeen edozein ekimenetan buru-belarri sartzeari, "ahal den guztian laguntzen" berak zioen moduan; eta denak ez ziren gozoak edo errazak izan, kasu Andoingo Udaleko zinegotzi izan zen garaia herriko familiak ordezkatzeko zituztenetakoen artean. Joxe Mari Olazabalekin eta herriko

OLAZABALEKIN ETA BESTE LAGUN BATZUEKIN BATERA ONGINTZA LANETAN URTETAN IBILI ZEN

beste lagun batzuekin batera urtetan ibili zen, elkarren orpo orpo, ongintza lanetan, hortik Caristasekoengandik jasotako aitortza eta esker ona...

Belaunaldi berriekin harremana egiteko gaitasuna izan zuen, eta, zalantzarik ez, baita horiengan eragitea lortu ere... Lainorik itxienak ezkutatu bitartean ikusten ez dugun egia bezalaxe, Inakirena halako batean beti azalduko zen. Mila esker zure zintotasunagatik eta bejondeizula Inaki!

BAZKIDE AITZINDARI IZENDATU GENUEN EUSKARAREN ETA HERRIAREN ALDE LAN ASKO EGIN BAITZUEN



BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:
Ebeiz ebeiko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 37 eurokoa da. Urrietan, 31 euro.
Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeka.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Andoni Urbistondo.
Maketatzailea: Maddi Trutxuelo.
Kudeaketa, harpidetak: Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publicitate@aiurri.eus
Banatzaileak: Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Urnietan).
Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

AIURRIK ez du bere gain hartzen aldiakir honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

EKOIZLEA: **ERROITZ**
 ALJATUAK: **INSTITUTU**
TOKIKOM
 BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:
ANDOAINGO UDALA
Urnietako udala
 DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:
GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA
Gipuzkoako Foru Aldundia
 Hilekotasun Berlinguamero Zuzendaritza
 ZIURTAGIA: **Bitkain**
 BABESLEAK:
Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.

Iñaki Arregi Moraza, andoaindar eredugarria

Joan zen ostiralean zendu zen, 92 urte zituela. Ekimen beteko gizona izan zen, eta bere ibilbidea eredugarria hainbat erakundeetan: Caritas, Osasun pastoralta, odol-emaileak, Larramendi Bazkuna, Alberto Agirre abesbatza...

Erredakzioa ANDOAIN

1927an Kale Nagusian jaioa, andoaindar peto-petoa zen. Aiurri 2011n eskainitako elkarrizketan bere ibilbidearen sorburua azaldu zuen: "gaztetatik saltsero samarrak izan ginen koadrilako lagunak". Joxe Mari Olazabal eta beste hainbat herrikiderekin batera, gaztetandik gizarte hobe baten aldeko lanean murgildu ziren. Olazabalek berak Andoaingo Domina jaso zuenean, Arregi eta lagunak gogoan izan zituen: "Jairoz geroztik, Iñaki eta biok elkarren ondoan bizi izan gara beti: eskolan elkarrekin, JOC-en elkarrekin, zinegotzi elkarrekin, pilotan elkarrekin... Beti lotuta, oso lagunak gara".

Hemeroteka, 2011ko elkarrizketa

Buru argia du Iñakik, eta memoria ona. Hainbat kontu kaligrafia dotorez idatzita gordetzeko ohitura du. Paper zatitxo batean hainbat ohar eskuartean dituela hasi da Aiurriko galderak erantzuten. Haurtzarora jauzi eginez, 1933 urtetik 1941era Andoaingo La Salle eskolan ikasi zuela gogoratu du, "La Salle eskola, gure etxearen ondo-ondoan zegoen orduan, Kale Nagusian bertan. Ama 31 urte zituela alargundu zen, bost seme-alaba zituen



Iñaki Arregi Moraza 2011n ateratako argazkian. AIURRI

hazteko eta eskola garbitzen hasi zen lanean. Gure amak egiten zuen lanaren truke debalde ikasten genuen guk". Iñakiri marraztea gustatzen zitzaion umetatik eta zerbaitetan nabarmentzekotan horretantxe nabarmentzen zela adierazi du. Gerora, 1941etik 1969 urtera Andoaingo Laborde lantegian hasi zen aprendiz gisa. Lantegi hartan aparteko ikasketak jasotzeko zortea izan zutela uste du: "Lehen promozioan 20 lagun sartu ginen, andoaindarrak guztiak. Delinianta moduan aritu nintzen lanean aurrena, ad-

ministrari gisa geroago". Labor-den, ordean, ez zen guztia lana. Eguneroko eginbeharraz gain, kultur nahiz kirol arloa sakon lantzen zuten: besteak beste, dantza, abesbatza, taxidermia, gimnasia, mendizaletasuna...

Kirolen artean, pilota gustatu izan zaio gehien Iñakiri. Gustatu bakarrik ez, jolastu ere soldadutzara joan arte jolastu zuen eskuz, hainbat txapelketetan parte hartuz. "Bazkaldutakoan Goikoplazako frontoira joaten ginen korrika. Han pilotan aritu eta gero, Labordenera, beste

korrika saioa eginez". Era berean, futbola eta bereziki mendizale-tasuna oso gogoko izan ditu. "1955 urtean, Euskalduna mendigoizale elkarte sortu genuen koadrilako kideok eta guk antolatu genituen lehen lau mendi martxak".

28 urte zituela ezkondu zen Rosario Artano andoaindarrarekin eta sei-seme alaba izan zituzten. 1961 urtean zinegotzi lanetan hasi zen Andoaingo udaletxean, "abertzalea eta euskaltzalea izan naiz ni beti, baina ez zait politika gustatzen. Inkonformista naiz eta independente moduan sartu nintzen udaletxean PNVko beste kide batekin batera. Kultura mailan aritu nintzen lanean eta lehen biblioteca jarri genuen garai bateko alhondiga zegoen lekuan". Urte batzuk geroago, 1969an eraikuntza enpresa batean hasi zen lanean 1991 urtera arte, "konstrukzio enpresatik eskaintza egin zidaten eta beharra zegoenez, baiezkoa eman nuen. Duela hogeitau urte jubilatu nintzen, 64 urte zituela. Nire txokoa irakurtzea eta ikerketa lantxoak egitea gustatzen zait orain", adierazi du.

Ume zenetik izan du elizarekiko lotura. Zazpi urte zituela monagillotza lanetan hasi zen San Martin parrokiari eta hantxe jarraitu zuen lanean, 1972 urtean, Santa Krutz ermita parrokia izendatu zuten arte.

Bestalde, betidanik izan du abesteko joera, Labordeneko abesbatzan parte hartu ez bazuen ere, Alberto Agirre abesbatzan ere urtetan abestu izan du Iñakik.

Bolondres gisa, lan asko egingakoa da. Besteak beste, 24 urtez izan da odol emaileen elkarteko ordezkari. "Neronek ere 60 aldiz emana dut odola. Pentsa, hasieran kalean ematen genuen, taxi

Udalaren eskertza

"Iñaki Arregi Moraza jauna zendu dela eta, Andoaingo Udalak bere familia, lagun eta parte hartu zuen elkarte guztiei gure doluminak eta babesa helarazi nahi dizkiegu.

Andoaindar orok gogoan dugu, Caritas edo Pastoral de la Salud elkarte bitartez urte guzti hauetan egindako bolondres eta modu solidarioan gure bizilagunei lagunduz. Egindako lanarengatik, badira urte batzuk, Andoaingo Caritas elkarteak "Joxe Mari Olazabalen bidea" sariarekin omendu zuen Iñaki Agirre Moraza.

Odol emaile elkarte egindako lana eta bertan lehendakari bezala eman zituen urteak ere aipatu nahi ditugu.

Urte askoz, bolondresean, Udaleko gizarte zerbitzuekin elkarlanean eta modu iraunkorrean egin zuen lana. Beti bere lagun, kide, famili zen Joxe Mari Olazabalekin.

Eskerrik asko Iñaki, beti izango zara eredu guztiontzat!".

geltokia dagoen horretan". Osasun pastoraltzan ere aritu da 30 urtean zehar, "adineko gaixotaldeari laguntzen nion Andoain nahiz eskualde mailan".

Gizon eskuzabalak utzi gaitu. Gudan bego.



andoaINDARRA
euskaraz

ESKELA

Iñaki ARREGI MORAZA jauna

Manuel Larramendi Kultur Bazkuneko bazkide aitzindaria,
Azaroaren 8an hil zen, 92 urte zituela.



Azken orduko agur beroa
jaso gugandik Iñaki;
herriarentzat egin duzuna
asko izan da eta aski!
Zu bezain leial eta jatorrik

ez genuen guk merezi,
zure jakintzak jantzi gaitu-ta
beste ezerk baino hobeki;
zure itzalak babes gaitzala
bihotzak bezain ederki!

Manuel Larramendi Kultur Bazkuna.
Andoain, 2019ko azaroak 13.

MANUEL LARRAMENDI

IRITZIA

JON ANDER UBEDA ANDOAIN

Seinaleak

Apiriletik hona jende gutxiago joan da bozkatzera. 766 herritar gutxiago. Ez da oharkabeen pasatzen utzi behar den datua.

- EH Bildu: Andoaingo hauteskunde gauaren garaile argia izan da, botoetan eta portzentaian irabazi duen alderdi nagusi bakarra baita. Hauteskunde Orokorretan, gainera, ez da ohikoan garaile izaten. Aurreko hiru hauteskundeetan Podemos eta PSE-EE nagusitu ziren. Oraingoan lehen indarra izan da. EH Bilduk duen oinarri sendoaren seinale argia da.
- PSE-EE: Ia berrehun boto galdu ditu. Hauteskundeak errepikatzeko interes handiena zutela ikusita, sozialistentzat ez da pozik egoteko moduko emaitza. Hauteskundeak errepikatzeko ideiak ez duela andoaindarren oniritzia jaso ondoriozta daiteke, ez baitu alderdi sozialista saritu.
- EAJ-PNV: Abstentzioa igo den heinean jaitsi egin da jeltzaleen babesa. Boto portzentaiari, aldiz, eutsi egiten diote. Bigarren aldagai horri eutsi diezaiokeke analisi positiboa egiteko garaian. Baina botoen galera hor dago. Zein da jeltzaleek antzeman dezaketen seinalea? Hauteskundez hauteskunde %20ko botoen portzentaia horretatik gorantz egitea kosta egiten zaiola. Sapaia non duen oso identifikatuta dagoen kasua da.
- Podemos: Botoen galera izaten jarraitzen du. Euskal hauteslegoak Rajoyren PP alderdia geldiarazteko aukeratzat hartu zuen, 2015 eta 2016 urteetan. Geroztik babesa galduz joan da.
- PP, Ciudadanos eta Voxen batura eginez gero, apiriletik hona ehundik gora boto galdu dira.
- Vox: 110 lagun dira Andoainen VOXi botoa eman diotenak. Errolda handiagoa duten Hernani edo Tolosan baino babes zabalagoa jaso dute Andoainen.



AZAROAREN HAMAREKO HAUTESKUNDE OROKORREN JARRAIPENA

WWW.AIURRI.EUS ANDOAIN/URNIETA

Hauteskunde gaua aiurri.eus gunean



Herrikide bat botoa ematen, joan zen igandean Andoainen. AIURRI



Maribel Vaquero Urnietako senatariak bere alderdiaren emaitza hobetu zuen. EAJ-PNV

Azken lau Hauteskunde Orokorretako emaitzak

Andoain | 2019, azaroa

Alderdia	Botoak	%
EH Bildu	1.927	%26,06
PSE-EE	1.804	%24,53
EAJ-PNV	1.718	%23,36
Podemos	1.224	%16,64
PP	379	%5,15
VOX	110	%1,50
C'S	91	%1,24
Abstentzioa	3.967	%34,89

Andoain | 2019, apirila

Alderdia	Botoak	%
PSE-EE	1.995	%24,61
EAJ-PNV	1.833	%22,61
EH Bildu	1.820	%22,45
Podemos	1.599	%19,73
PP	355	%4,38
C'S	245	%3,02
VOX	95	%1,17
Abstentzioa	3.175	%27,99

Andoain | 2016, ekaina

Alderdia	Botoak	%
Podemos	2.378	%32,38
EH Bildu	1.383	%18,83
PSE-EE	1.300	%17,70
EAJ-PNV	1.263	%17,20
PP	636	%8,66
C'S	230	%3,13
Abstentzioa	4.064	%35,49

Andoain | 2015, abendua

Alderdia	Botoak	%
Podemos	2.339	%29,40
EH Bildu	1.542	%19,38
PSE-EE	1.472	%18,50
EAJ-PNV	1.345	%16,91
PP	597	%7,50
C'S	272	%3,42
Abstentzioa	3.531	%30,63

Urnieta | 2019, azaroa

Alderdia	Botoak	%
EAJ-PNV	956	%30,32
EH Bildu	702	%22,26
PSE-EE	599	%19,00
Podemos	552	%17,51
PP	170	%5,39
VOX	68	%2,16
C'S	39	%1,24
Abstentzioa	1.587	%33,33

Urnieta | 2019, apirila

Alderdia	Botoak	%
EAJ-PNV	1.001	%29,34
EH Bildu	711	%20,84
PSE-EE	670	%19,64
Podemos	664	%19,46
PP	142	%4,16
C'S	99	%2,90
VOX	50	%1,47
Abstentzioa	1.307	%27,50

Urnieta | 2016, ekaina

Alderdia	Botoak	%
Podemos	933	%32,33
EAJ-PNV	646	%22,38
EH Bildu	444	%15,38
PSE-EE	435	%15,07
PP	250	%8,66
C'S	108	%3,74
Abstentzioa	1.826	%38,62

Urnieta | 2015, abendua

Alderdia	Botoak	%
Podemos	882	%28,24
EAJ-PNV	777	%24,88
EH Bildu	535	%17,13
PSE-EE	451	%14,44
PP	232	%7,43
C'S	122	%3,91
Abstentzioa	1.599	%33,8

*Iturria: Espainiako Barne Ministerioa.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ORAIN
GIPUZKOA



1963ko ikasle talde hartako hainbat lagun hurbildu ziren ikastolako eraikinaren irekiera ekitaldira. AIURRI

Bazkardoko eraikina goitik behera berritu dute

Irizpide pedagogiko berriei jarraituz, aldaketa handia eman da Aita Larramendi ikastolako ikasle txikiaren eraikinean. Larunbatean egin zuten irekiera ekitaldia, eta bertara lehen belaunaldiko ikasleak eta irakaslea hurbildu ziren

1963ko ikasle haien oroitzapena



Peio Gaztañaga. AIURRI

Peio Gaztañaga
Hunkigarria izan da ekitaldia, eta orduko ikasleoi oroitzapen politak piztuarazi dizkigu. Gogoan dut laugarren pisuan zegoen ikasgelara joateko igo behar genituen eskilarak. Buruan daukadan argazkia, honakoa da: gu denok lurrean eta Maria Artolazabal andereñoa aulki batean eserita. Mari Pazi gogorazi diot behin istripu txikia izan nuela gelan, eta harrezkero nola marka geratu zaidan.



Irene Olazabal. AIURRI

Irene Olazabal
Orduko gurasoen jokabidea azpimarratuko nuke ezereen gainetik, ikastolaren aldeko apustua egin baitzuten, nahiz eta jakin legez kanpo jardungo zutela. Euskara izan zuten helburu, eta beraien ahalginatik ez balitz ikastola ez zen suspertuko. Pertsonalki, oso oroitzapen gozoak dauzkat. Hastapeneko hezkuntza proiektu hark lortu zuen gu guztiok irakurketan, idazketan eta beste hainbat alorretan sakontzea.



Aitor Barandiaran. AIURRI

Aitor Barandiaran
Gogoan dut Santa Krutz ermitan meza entzun ondoren nola abiatzen ginen tropelean, Eskola kaleko gelara. Gurekin ziren Mari Paz Artolazabal eta Marimi Ugalde bi andereñoak. Adin diferenteetako umeak biltzen ginen gela hartan, gu baino bi edo hiru urte zaharragoak, eta baita gu baino gazteagoak. Uste dut ona izan zela guztion arteko bizikidetzak. Jolastu egiten genuen asko orduan, zer bestela?

Eraldaketa Aita Larramendi ikastolan



Iriondo, Artolazabal, Lourdes eta Irai Jauregi eta Etxezarreta. AIURRI

Zinta moztea Mari Paz Artolazabalek, Lourdes Jauregik eta Irai Jauregik ikastolako hiru belaunaldi ordezkatzan dituzte. Sinbolismo handi hori baliatu zuten eraikin eraberrituari irekiera ofiziala emateko.



Espazio zabalak nagusitzen dira eraberritu duten eraikinean. AIURRI

Lau baldintza nagusi hartu zituzten kontuan: espazio tradizionala gainditzea, marko pedagogiko berriari egokitzea, berdeguneak mantentzea, irisgarritasun araudia betetzeko sarrera nagusia egokitzea eta herrira zabaltzea.



Ikastolara sartzeko txirrista. AIURRI

Txirrista Andoni Etxezarreta gurasoen elkarteko lehendakari eta arkitektoak adierazi zuenez, hasiera batean espero ez zuten bosgarren elementua kontutan hartu behar izan zuten: Ikastolara sartzeko txirrista. Haurren eskaera izan zela nabarmendu zuen.



Edu Muruamendiaraz dantza zuzendaria. AIURRI



Garbi Losada antzerki zuzendaria. AIURRI



Mikel Agirregomezkorta antzerki eskolako zuzendaria. AIURRI

Sarobe, adituen ahotan

Arituak eta adituak dira, bakoitza bere esparruan. Sarobeko taula gaina eta atzealde ondo baino hobeto ezagutzen dituzte. Kultur eraikinaren 25 urteak bete direnean, haien lekukotza Saroberen historian zehar bidaia egitea bezalakoa da

Jon Ander Ubeda URNIETA

Gehien-gehienak "Soinuen Begiradak" ikuskizunaren lan teknikoetan murgilduta aurkitu ditugu. Saroben, non bestela.

EDU MURUAMENDIARAZ AUKERAN DANTZA TALDEA

Etxean baino gehiago egoten al zara Saroben?

Bai. Zalantzarik gabe.

Nola definituko zenuke Sarobe?

Sorkuntza lan handia bertan egin dut. Eroso eta lasai aritzen naiz Saroben. Gure hastapenetan Donostian lokal txiki bat genuen, baina Urnietara etortzea sormenari bidea irekitzea zen. Artistikoki jauzi handia eman genuen. **Aukeran dantza taldearen kabia da.** Egoiliar modura gaude hemen. Buelta asko ematen ditugu hara eta hona, baina beti Sarobera itzultzen gara.

Zure kasuan, gainera, urteen poderioz urnietar askorekin oso harreman estua egin duzu...

Egape dantza taldeari esker urnietar asko ezagutu dut, baina hona iritsi nintzenean Jaione eta Maribelekin harreman oso estua egin nuen. Profesionaltasun maila batera iritsi naiz urteekin, baina alderdi humanoari begira, urnietar askorekin harreman estua lortu dut. Lotura handiagoak sortzen dira, modu horretan. Beste familiatxoak hemen dudala sentitzen dut.

Bergarar, donostiar eta urnietar sentitzen al zara dagoeneko?

Bergaran jaio naiz eta bergararra izango naiz beti. Donostiara etorri nintzen bizitzera, eta Urnietara etortzeko aukera sortu zitzaidan. Bertan hainbeste urte egingo nituela ez nuen pentsatzen. 22 urte dira, denera. Urnietak asko eman dit. Nik beharbada zerbait eman diet, baina urnietarrengandik jaso dudana garrantzia handikoa da niretzat. Urnietarra ere sentitzen naizela esan dezaket.

Saroben sortu eta parte hartu duzun ikuskizun guztietatik zein nabarmenduko zenuke?

"Gernika" ikuskizunarekin aro berri bat ireki genuela esango nuke. Garbi Losada zuzendari lanetan aritu zen. Lan egiteko moduan aldaketa handia eman genuen. Oso prozesu zaila izan zen, baina emaitza ikaragarria izan zen. Gure joerekin eta inertziekin hausteko metodoa aukeratu genuen, eta kosta bazen ere, ikuskizun indartsua sortzea lortu genuen.

GARBI LOSADA ADOS TEATRO

Urteurrenarekin bat eginez, "prozesu irekia" izeneko ekimena antolatatu duzue. Zertan datza?

Finean, ikuslegoa entsegu batera gonbidatzea da. Une honetan "Lloviendo ranas" ikuskizuna erabat antolatuta daukagu. Entsegu modukoa eskainiko dugu, ostiral honetan. Horrek esan nahi

du aktoreen lana zuzentzeko eszenak moztu ahal daitezkeela. Ikuslegoarentzat bitxia da esperientzia, aktoreek aldiz ez dute nahi izaten.

Sarobe aipatzean zer datorkizu zuri burura?

Luxua. Denborarekin oso harreman estua garatu dugu. Gure etxearen parekoa da. Sarobe eroso da, tratu oso ona eskaintzen digute eta areto nagusia entseatzeko oso aproposa da. Kanpoan egin izan ditugun antzezlanak martxan jarri aurretik ere, ikuskizunaren azken prestaketak egiteko hona etorri izan gara.

Zenbat bider egon zarete hemen?

Dagoeneko kontua galdu dut. Ahal izan dugun guztietan Urnietara etorri gara. Hamabost antzezlanetik gora, erraz.

Horietatik guztietatik zein da bereziki gogoan duzuna?

"Las mujeres de verdad tienen curvas", antzezlan haren oso oroitzapen politak gordetzen ditut. Kubako antzezleekin lan egin genuen. Entseguak funtzioaren parekoak izaten ziren. Irri asko egin genuen aktore haiekin.

MIKEL AGIRREGOMEZKORTA

URNIETAKO ANTZERKI TALDEA

Marizulo, Urnieta 59 eta 1936 hiru ikuskizun haiek gabe Urnietako antzerki tailerra martxan jarriko al zen?

Ez. Gogoan izan behar da, Marizulo sortu aurretik ere, tailerra martxan jartzeko ahalegina egin zela. Ez zen posible izan. Marizulo pizgarria izan zen. Are gehiago, antzezlan horrek herri mailan katarsi modukoa eragin zuen. Jende askok parte hartu zuen,

eta horren ondorioz tailerra antolatu eta martxan jarri zen.

Marizulori esker antzerkigintzarako Urnietan zegoen tradizio luzea berreskuratu zen.

Zer da zuretzat tailerra?

Herrian integratzeko beste elementua izan da. Marizulo eta gero energia berezia sortu zen, eta energia horri jarraipena emateko aukera aurkitu dugu antzerki tailerrean.

Zer litzateke Urnieta, Sarobe gabe?

Sarobek gizarte eta kultur bizitzan oso toki berezia betetzen du. Ikastaro asko antolatzen da bertan. Tailerraren egoitza da, eta antzerki konpainia asko hona hurbiltzen dira. Horri esker, herriarrok antzerkiaz gozatzeko oso aukera ona dugu. Estreinaldi asko ikusten ditugu, oso prezio onean.

Saroben parte hartu edo ikusi dituzun ikuskizun guztien artean zein nabarmenduko zenuke?

Urnietan bertan egindako trilogia azpimarratuko nuke. Marizulo, Urnieta'59 eta 1936 garrantzia handikoak izan dira niretzat. Besteak beste, parte hartzea herrikoia eta anitza izan da. Ekoizpen osoa bertatik egin da, gainera. Hiru ikuskizun horiei esker, gainera, jende asko elkartzeko aukera sortu da. Hori herriarentzat oso garrantzitsua izan da.

PABLO LUSARRETA

SAROBEO TEKNIKARIA

Bertan ikusi eta bizi izan duzun guztiarekin, liburua osatzeko esperientziak gordeko dituzu.

Asko, eta asko. Funtzioa martxan zegoela argindarra joan izan da,



Pablo Lusarreta Sarobeko teknikaria. AIURRI



Jaione Jauregi Sarobeko teknikaria. AIURRI

soinu eta argi mahaia blokeatzea... horrelako hamaika izan dira.

Tentsio handiko uneak, zalantzarik gabe.

Ikuskizuna martxan dagoen bitartean tentsioa izaten da. Ardura handiko postua da, baina urteekin eskarmentua hartzen joaten zara. Hasierako urte haietan estuasuna handiagoa zen.. **Bertatik igaro diren konpainia guztien artetik, bereziki aipagarria zaizun teknikariren bat nabarmenduko al zenuke?**

Hasierako urte haietan irlandar jatorriko Tom Donellan argi teknikaria nabarmenduko nuke. Bertako konpainiekin lan egiten zuen. Adinekoa zen, baina lan egiteko modua oso gustukoa nuen. Erreferentzia oso ona izan zen niretzat.

Urteen poderioz harreman handia egin dut bertako konpainietako teknikariek.

Zer nolako harremana sortzen da antzezlanak prestatzera etortzen diren konpainietako teknikariek?

Konpainia gehienak ezagunak dira, eta dagoeneko elkar ezagutzen dugu. Bakoitzaren eskaerei bidea ematen diegu, lehen egunetan bereziki.

Bereziki nabarmendu nahiko zenukeen ikuskizun bat aipatuko al zenuke?

Gehien eragin didaten lanak Urdian bertan sortu genituen hiru lanak izan dira. Ardurak hartu genituen, eta ekoizpen bakoitzean barruraino murgildu ginen.

Emaiza oso atsegina izan zen, hiru kasuetan.

JAIONE JAUREGI SAROBEO TEKNIKARIA

Sarobe arte eszenikoaren guneak kultura mailako profesionalekin harreman zuzena izateko aukera bikaina eman dizu, urte hauetan guztietan.

Bai, zeren eta ni neu psikologia mundutik nator. Urnietako eskolagintan eskolak ematen nengoela, Kike Santiago eta orainik nire lankidea den Maribel Tardiorekin topo egin nuen. Zinema zaharra horren baitan sortu zen Sarobe, eta abentura horretan murgildu nintzen.

Kike Santiago zuzendari zela, alboan aritu nintzen administrari eta ekoizpen lanak egiten. Kikek uztean, Maribel eta biok sarobeko kudeaketa eta dinamizazioaz arduratu ginen, eta ikasitakoa garatzeko aukera izan genuen.

Zein konpainiekin duzue harreman sendoena?

Ekoizpen moduak aldatu dira. Lehen ez zegoen hilabete osoko muntaia egiteko joera. Saroben denbora, espazioa eta baliabideak eskaintzen dizkiegu. Ados, Tanttaka, Vaiven eta Txalo konpainiak maiz etortzen dira. Gipuzkoako konpainientzat erreferentziazkoa da.

Urnietan eta Sarobe elkar bereiztea zaila da.

Gaur egun, bai. Kosta egin zen, halere. Identifikazio handia ez zegoen, kanpoko konpainiak bertan izaten zirelako. Udal ikastaroekin jendea etortzen zen hona, baina bereziki Urnietan egin diren hiru ikuskizunekin Saroberekin lotura areagotu egin

da. Pentsa, larogei lagun inguru elkartu ziren ikuskizun bakoitzean. Guztiak urnietarrak. Orduan hasi zen jendea Sarobe bere egiten. Gaur da eguna Sarobera sartu eta eraikin osoa bere etxea balitz bezala ezagutzen dutela.

Horri esker antzerkiera etortzeko dinamika sortu da ere.

Ikuskizun guztien artean zein nabarmenduko zenuke?

Parte hartze zuzena izan nuelako Marizulo aipatuko nuke. Gainerako obren artean, Ados teatrotoren "Como agua para chocolate" antzezlanak magikoa iruditu zitzaidan. Liburu hori taula gainera eramatea oso zaila zen. Sukaldean aritzen ziren, eta usain hori ikusle goarengana iristea lortzen zuten. Magikoa izan zen.

Asko dira, abian jarri diren 300 ekoizpenen artetik.

Etorkizunean nondik nora jo beharko luke Sarobek?

Inertzia batzuk badaude, baina aldatu behar dira. Ikastaroekin loraldi modukoa izan zen, baina ikastaro gehienak kiroldegi berriaren eskainiko dira. Hori da, gainera, toki aproposena.

Saroben eskaeren arabera lanean jarraitzen dugu. Antzerkian sakondu nahi genuen, dantzari heldu ere. Bi kasu horietan oinarri sendoak jarri ditugu. Antzerkian, gainera, eskola martxan jartzea lortu dugu.

Etorkizunera begira, funtzionatzen duten eta urnietarren harrera jasotzen duten proiektuekin aurrera jarraituko dugu. Zaharkitutak geratzen direnei begirada berria ematen saiatuko gara.



Mikel Beldarrain artzaina. ADARRAZPI

Adarrazi gaztandegia bertatik bertara ezagutzeko aukera

Larunbatean eta igandean, goizeko hamaiketan hasita. Aurretik izena eman beharra dago

Erredakzioa URNIETA

Goiburua auzoan Adarrazi baserria aurkitzen da. Askorentzat ezaguna denez, bertako familiaren negozioa artzaintzara eta gazta egitera bideratuta dago. Larunbat honetan bertara bisitaldian joateko aukera izango da. Besteak beste, gazta nola egiten den ikusteko eta arkumeak eta latxa ardiak ukitzeko. Familia giroan egiteko plan aproposa da, beraz.

Bisitaldiak iraungo duen ordu eta erdian, ardi latxaren ezagutzea eta bizi-zikloa azalduko dute. Jarraian, ardiak jizteko gunea eta prozesua gertutik jarraitu ahal izango da. Mamia edo gazta freskoari lotutako tai-

lerra egingo dute, bisitaldi berean. Jarduera gazta dastaketarekin amaituko da.

Antolatzaileek aurretik izena ematea beharrezkoa dela jakinarazi dute. Horrez gain, nahi duenak bertan bazkaltzeko aukera izango du. Ardi-esnearekin eta arkumearekin eginiko askotariko produktuak dastatzeko aukera izango da. Menuaren prezioa 32 eurokoa izango da. 12 eurokoa, aldiz, 10 urte arte haurrentzat. Izena emateko deitu edota idatzi egin behar da: 943 49 50 69 / 688 89 50 68 / arditurri@gipuzkoa-mendizmendi.net.

Bisitaldia goizeko 11:00tan hasiko da, Adarrazi baserrian bertan.

Uda Aralarren, negua Urnietan

Adarrazi ardi gehienak –300 ardi baino gehiago– Aralarko Natura parkeko larreetara eramaten dituzte ekainean, Pardelutseko inguruetara hain zuzen ere, eta handik ibiltzen dira urria bitartean. Urrian Adarrazi ardiak ekartzen dituzte atzera eta Urnietan inguruko larreetan zein artean ibiltzen dira ekaina bitartean, urteko zikloa osatuz.

Larunbateko ekitaldia antolatu duen Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioak ohar bidez zabaldu duenaren arabera, "naturparkeetako abeltzaintzaren zikloa ezin azal daiteke udako larretokietan egiten dena, kasu honetan Aralarko, bakarrik azalduz. Urte osoko jardura azaldu beharra daukagu. Gure herriko artzaintzari lotutako ohitura horiek mantzentzeak eragin zuzena dauka hainbat arlo esanguratsuetan: ekoiztutako gaztaren kalitatean, ardiaren osasunean, bioaniztasunaren eta paisaiaren kontserbazioan...".

Mikel Beldarrain eta Inma Iriondo dira Adarrazi nekazal ustiapenaren arduradunak, eta euren bitartez egingo da bisitaldi gidatua.

Estela Cuevas, Kulturarte jaialdiko antolatzailea

Etxeberri plazakoek Kulturarteko Jaia antolatu dute larunbat honetarako: urnietarren eta guregana etorri direnen elkar harremana sustatu nahi duen jaialdia da. Egun osoko jaia izango da Egape ikastolan, ekitaldiz betea. Bertaratzeko deia egin dute antolatzaileek

Andoni Urbistondo URNIETA
Zer da Kulturarteko festa?

Beno, hiru urte atzera antzeko festa bat antolatu genuen Egape ikastolan, baina bertako ikasle eta gurasoentzat bakarrik. Jendea gustura geratu zen, eta ekimena Urnietako herritar guztiei zabaltzea erabaki genuen, Etxeberri auzoko Bizilagunen Elkar-tearen laguntzarekin. Dena den, Etxeberri auzokoak ez diren herritarren ekarpenak onartzeko prestutasun osoa daukagu. Kultura ezberdinetik datozen herritarrek batu ditugu, bertakoak garenon herritarrez gain, eta hor ari gara, pixkanaka, ekimena indartzen. Udalaren laguntza ere eskertu nahi nuke, materiala utzi digulako, eta talderen baten kontratazioan lagundu.

Zer antolatu duzue, zehazki, larunbat honetarako?

Gauza asko. 11:30ean hasita, tailerrak eta postuak India, Etiopia, Pakistan, Marokoko familiekin: henna, txirikordak, Afrikako ehunak, artisautza, Haima bat tea hartzeko... Gure helburua garbia da: interakzio bat sortzea postu edo tailer horietan parte hartuko dutenen, eta argibideak emango dituztenen artean. Alegia, *feed-backa* sortzea bi aldeen artean. Bertakook gal-



Estela Cuevas jaiaren antolatzaileetakoa da. AIURRI

detzea, eta gurera etorri direnek erantzutea, eta alderantziz.

Zergatik antolatu duzu festa hau?

Beno, ni ireki samarra naiz izaeraz, eta ez litzaidake batere gustatuko beste herri batera joan eta isolatuta, edo bertakoe-kin harremanak izateko zailtasunak edukitzea. Urnietara etorri diren atzeritarren laruan jartzen naiz, eta niretzako nahi ez dudana haiei ez gertatzea da, halako ekitaldiak antolatzea bultzatzen nauena. Aniztasunak aberastu egiten gaitu. Guk etortzen direnei hemengo ohiturak eta bizimoldea erakusten dizkiegun neurrian, guk ere haiengandik ikasi. Horregatik euskal dantzak edota, Euskadiko stand bat jarriko da. Bertako ekimenak atzeritarrek sortutakoekin uztartuko ditugu.

Janariarekin ere ekimen berezia antolatu duzue ezta?

Bai. Eguerdian, jendeari euren herrietan ohikoak diren janariak ekartzeko eskatu diegu. Razioak banatuko dira, eta jendeak toki guztietako janariak dastatu ahal izango ditu. Baldintza bakarra da denek zerbait ekartzea, eta elkar trukatzeko egitea, dirua erabili gabe. Umeentzat makarroiak izango dira, beraz haur txikiak dituzten familiak lasai etor daitezela. Bazkalosterako Amesti akademiak haurrekin halako Afrikako musika tresnak sortzeko ekimena jarriko du abian txikiak asper ez daitezen. Arratsko 17:00tan Bergarako Ndank Ndank perkusio musika taldearen emanaldia izango dugu. Talde honek gizarte proiektu bat sustatzen du, baina beraiek azalduko dute zein den proiektu hori, kontzertua hasi aurretik. Eta bukatzeko, Mikel Franco urnietarrak Tai Chi tailerra eskainiko du, 18:00ak aldera.

Ze soziologia daukagu Urnietan?

Ez daukat datu zehatzik, baina Egape mailan egin genuen azken jaialdian hamabi herrialde ezberdinetako lagunek parte hartu zuten, kopuru potoloa da. Mapa mundi bat jarriko dut, etortzen direnak nongoak diren adieraz dezaten, eta ea kopuru hori handitzen dugun. Nik, batez ere, urnietarrak animatu nahi ditut, gutxien azaltzen direnak baitira. Beste kulturetako jendea errazago azaltzen da, errazago ematen du laguntza. Euskaldunoi gehiago kostatzen zaigu, lehen hartu-emanen itxiagoak gara. Jaialdiaren berri ematera joan naizen atzeritar guztiek sekulako harrera egin didate, eta laguntzeko prestutasun handia erakutsi.

Zure ustean, zer nolako pertzepzio dute atzeritarrek urnietarrekiko? Eta alderantziz?

Atzeritarrek hemen gustura sentitzen direla esango nuke, babestuak. Alderantziz, ezin dut gauza ziurrik esan. Nire ustez atzerriko jendea ondo hartzen dugu, ez dut arrazakeria zantzurik sumatu inon, eta poztekoa da. Jendarte ona garela esango nuke.

Zerekin konformatuko zinateke, larunbatean?

Zenbakiaz harago, interaktuazioa jarriko nuke balioan, elkar harremanak sortzea, azaltzen diren guztien artean. Parte hartze kopuru handiak ez du beti *feed-backa* ziurtatzen.

**"KANPOKOAK
ERRAZAGO
ANIMATZEN DIRA.
BERTAKOAK
ITXIAGOAK GARA"**

Egun osoko ospakizuna Egape ikastolako jolastoki estalian

Etxeberri plaza auzo elkar-teak Urnietako Udalarekin batera antolatutako Kulturarteko jaia. Larunbat honetan, egun osoan zehar, Egape ikastolako jolastokian:

11:30-13:30 Tailerrak.
12:30-13:30 AfroRap.
14:00-16:00 Janari dastaketa.
15:30-17:00 Musika tailerra.
17:00-18:00 Afrikako taldea.
18:00-18:30 Tai Chi tailerra.



Egape ikastolako jolastoki estalian, antzeko ospakizun batean. ETXEBERRIPLAZA



Damzkiak, Bulgaria. ETXEBERRIPLAZA



Takoak, Mexiko. ETXEBERRIPLAZA

Indarkeria matxistari aurre egiteko agerraldia

EH Bilduk agerraldi jendetsua egin zuen, joan zen astearte iluntzean. Hiru belaunaldi ezberdinetako emakumeak elkartu zituen indarkeria matxistari planto egiteko garaia dela aldarrikatzeko. Hitzaldia eta kafe tertulia saioa antolatu dituzte, azaroaren 21erako



Agerraldi jendetsua egin zuten astearte iluntzean, Zumea kalean dagoen Bilgunean. AIURRI

Erredakzioa ANDOAIN

Esti Mujika zinegotzia izan zen bozeramaile lanak egin zituen: Azaroaren 25a, emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako eguna iristen ari den honetan, EH Bilduko komunitatea osatzen

dugun emakumeak elkartu gara. Elkarri hartuta, babesa emanez, bizkarra babestuz, nahikoa dela esateko. Gure herrietan, ia egunero, eraso sexisten berri dugu. Arazoa oso larritzat duguna normalizatu egin du gizarteak.

Arazo larri horri buruz hausnarketa egiteko hitzaldia eta kafe tertulia antolatu dituzte. Datorren azaroaren 21ean izango da, ostegunarekin, Bilgunean. Samara Veltek "Nik sinesten dizut" liburuaz hitz egingo du.

Andoaingo Udalak antolatu duen ekitaldi sorta

Indarkeria matxista bizitzen ari diren emakumeen autonomiarako Taupada zerbitzua aurkeztuz abiatu da aurtengo egitaraua.

Azaroak 14, osteguna

Nerea Ibarrola: "Alcasser kasua". Indarkeria matxistari buruzko errelatoaren garrantzia. 18:30 Bastero. Gaztelaniaz.

Azaroak 18, astelehena

Emasolas: nola jokatu biolentzia matxistaren aurka? 18:30 Urigain. Gaztelaniaz.

Azaroak 20, asteazkena

Zine-foruma: "Las elegidas" (argazkian). 18:00 Bastero. Gaztelaniaz.



Azaroak 23, larunbata

Autodefentsa feminista tailerra. 10:00-14:00 / 16:00-20:00. Allurralde. Elebitan.

Azaroak 25, astelehena

Indarkeria matxistaren biktimei omenaldi ekitaldia. 19:00 Goikoplaza. Elebitan.

Azaroak 29, ostirala

Memoria eraikiz ekimena. Goizez ikastetxeentzat, arratsaldez hiritarrentzat. 18:00, 19:00, 20:00 Goikoplaza. Elebitan. Erreserbak: berdintasuna@andoain.eus 943 300 830.

50€
BELTZA

60€
BERDEA

70€
ZURIA

Unioaren 30etik
Nafar hegoaldeko uza
euskarari puzka
azaroaren 20ra

**AGER
ALDIA**

ERRI GORA
WWW.EUS

aeK

Basque Country

Sorren

KARTELDEGIA

FUTBOLA		
OHOREZKO ERREGIONAL MAILA		
Mutriku-Euskalduna	2-1	
SAILKAPENA		
1 Anaitasuna	24 puntu	
13 Euskalduna	9 puntu	
ASTEBURUKO PARTIDA		
16:30 Euskalduna- Oiartzun / Ig, 17		
NESKAK, 0. ERREGIONALA		
Zumaiako-Urnieta	2-2	
ERREGIONAL PREFERENTE		
Vasconia-Urnieta	1-0	
SAILKAPENA		
1 Vasconia	21 puntu	
14 Urnieta	6 puntu	
ASTEBURUKO PARTIDA		
18:00 Urnieta- Lizeoa / Lar, 16		
ERREGIONAL 1. MAILA		
Euskalduna-Segura	1-3	
ASTEBURUKO PARTIDA		
15:30 Euskalduna- Urola / Lar, 16		
PREFERENTE NESKAK		
Lizeoa-Euskalduna	0-1	
SAILKAPENA		
1 Euskalduna	19 puntu	
2 Añorga	18 puntu	
ASTEBURUKO PARTIDA		
17:30 Euskalduna- Axular / Lar, 16		
JUBENIL MAILA, OHOREZKOA		
Euskalduna-Real Union	2-2	
JUBENILEN 1ª MAILA		
Ostadar-Urnieta	2-1	
Danena-Euskalduna	4-1	
ASTEBURUKO PARTIDA		
16:00 Urnieta- Billabona / Lar, 16		
19:30 Euskalduna- Ordizia / Lar, 16		
KADETE, A MAILA		
Sporting de Herrera-Euskalduna	0-2	
Urnieta-Lengokoak	2-1	
ASTEBURUKO PARTIDA		
17:00 Urnieta - Lengokoak/ lar, 9		
KADETE, B MAILA		
Antigua Luberrí-Urnieta	0-2	
Euskalduna-Orioko	0-7	
ASTEBURUKO PARTIDA		
15:45 Euskalduna- Amara Berri / Lar, 16		
KADETE NESKAK		
Tolosa-Euskalduna	5-1	
Urnieta-Danena	0-0	
ASTEBURUKO PARTIDA		
12:00 Euskalduna- Intxaurdi / Ig, 17		
ESKUBALOIA		
EUSKADI, SENIOR MUTILAK		
Basauri-Urnieta	33-15	
ASTEBURUKO PARTIDA		
19:00 Urnieta- Gure Auzune / Lar, 16		

GIPUZKOA, SENIOR MUTILAK		
Leizaran-Munttarpe	26-28	
GIPUZKOA, JUBENIL MUTILAK		
Leizaran-Urnieta	31-37	
SAILKAPENA		
1 Urnieta	10 puntu	
3 Leizaran	7 puntu	
ASTEBURUKO PARTIDA		
15:45 Urnieta-Tolosa / Lar, 16		
GIPUZKOA, JUBENIL NESKAK		
Aiala-Urnieta	17-28	
Usurbil-Leizaran	23-24	
GIPUZKOA, KADETE MUTILAK		
Usurbil-Leizaran	22-41	
Egia-Leizaran Horia	26-21	
ASTEBURUKO PARTIDA		
11:00 Leizaran-Freintza Beissier / Ig, 17		
11:45 Urnieta-Urola Goierri / Ig, 17		
13:00 Leizaran Horia-Bergara / Lar, 16		
GIPUZKOA, KADETE NESKAK		
Legazpi-Leizaran	23-35	
Bera Bera-Urnieta	32-29	
Leizaran Horia-Bergara	22-21	
Urnieta I.M-Alaia	35-12	
SAILKAPENA (-A-1. TALDEA)		
1 Eibar	10 puntu	
3 Leizaran	8 puntu	
SAILKAPENA (-A-2. TALDEA)		
1 Aloña Mendi	10 puntu	
5 Urnieta	2 puntu	
SAILKAPENA (-B-)		
2 Leizaran Horia	8 puntu	
3 Urnieta I.M	6 puntu	
ASTEBURUKO PARTIDA		
13:00 Urnieta-Aloña Mendi / Lar, 16		
ARETO FUTBOLA		
GIPUZKOAKO KOPA		
Mondrate-Euskalduna	5-4	
LIGA, 1. JARDUNALDIA		
Euskalduna-Idiazabal	3-3	
SAILKAPENA		
1 Lauburu Berazubi	14 puntu	
4 Euskalduna	11 puntu	
SASKIBALOIA		
SENIOR GIZONEZKOAK 3. MAILA		
Oiartzun-Zurrut	58-61	
SAILKAPENA		
1 Aloña Mendi	6 puntu	
6 Zurrut S.K.	4 puntu	
JUNIOR GIZONEZKOAK		
Añorga-Ganbara	59-32	
SAILKAPENA		
1 Cafes Aitona Askatuak	6 puntu	
8 Ganbara	3 puntu	
ASTEBURUKO PARTIDA		
09:00 Ganbara- Axular / Lar, 16		
KADETE GIZONEZKOAK		
Ganbara-Antigua Luberrí	11-111	

BEHOBIA-DONOSTIA SAILKAPENA

ANDOAIN					
Postua	Izena	Denbora			
24	Mikel Rodriguez	01:06:13	10386	Jose Gomez	01:41:48
134	Javi Menta	01:11:23	10421	Iñigo Ipinza	01:41:51
269	Oñatz Gonzalez	01:13:47	10479	Sebastián Alejo	01:41:58
358	Jon Lanz	01:15:05	10511	Iban Barrutia	01:42:02
387	Axier Etxeberria	01:15:24	10527	Almu Carvajal	01:42:04
389	Edu Portillo	01:15:25	11093	Iosune Echezarreta	01:42:58
587	Asier Dominguez	01:17:18	11636	Juan Carlos Solana	01:43:48
687	Iker Telletxea	01:18:08	11887	Xabier Arias	01:44:12
712	Jon Otaño	01:18:20	11897	Aratz Irigaray	01:44:12
852	Jon Iturralde	01:18:59	12027	Mikel Conde	01:44:23
1174	Mikel Arteaga	01:20:48	12208	Alberto Rosco	01:44:41
1805	Alfredo Rodríguez	01:23:52	12436	Julen Fernandez	01:45:04
1971	David Elvira	01:24:27	12666	Joxemari Gonzalez	01:45:30
2020	Andoni Etxezarreta	01:24:38	12856	Iraitz Compains	01:45:51
2096	Josu Arregi	01:24:55	13014	Alberto de Lucas	01:46:05
2473	Antxon Gonzalez	01:26:16	13439	Lizar Ariztimuño	01:46:47
2634	Martin Askarai	01:26:48	13951	Alberto Aparicio	01:47:34
2658	Jesus Maria Patino	01:26:51	14120	Asier Corbacho	01:47:50
2947	Oier Etxeberria	01:27:40	14126	Patxi Alonso	01:47:51
3079	Evaristo Sancha	01:27:58	14720	David Corbacho	01:47:50
3155	Angel Carrasco	01:28:11	14733	Fernando Rezola	01:48:48
3759	Iñaki Etxeberria	01:29:36	14735	Mirari Diaz	01:48:49
3776	Emilio Audikana	01:29:38	15025	Igor Olazaguirre	01:49:16
4440	Andoni Lanz	01:31:13	15268	Alvaro Felipe	01:49:38
4970	Unai Martinez	01:32:23	15513	Aritz Rabadan	01:50:05
5281	Maikel Gomez	01:33:01	15524	Ane Botas	01:50:07
5332	Roberto Salgado	01:33:09	16821	Unai Azpiroz	01:52:26
5356	Carlos Sanchez	01:33:11	17364	Alberto Elizburu	01:53:23
5599	Iker Etxeberria	01:33:43	17412	Virginia Ciganda	01:53:29
5654	Edorta Irazu	01:33:49	17637	Unai Lasquibar	01:53:55
6309	Gustavo Marques	01:35:04	17878	A.Manuel Pacheco	01:54:19
6333	Mikel Alkaide	01:35:06	18328	Mikel Aranalde	01:55:13
6342	Igor Rabadan	01:35:07	18879	Marian Etxezarreta	01:56:11
7282	Julen Rivas	01:36:53	18881	Iván Vicente	01:56:11
7666	Joserra Irizar	01:37:29	19146	Marga Zalakain	01:56:44
7734	Peio Ugartemendia	01:37:35	21344	Hipólito Barreña	02:01:50
8026	Iker Pernas	01:38:05	21345	Iker Lasquibar	02:01:50
8184	Aitor Aramendi	01:38:20	21383	Gorka Salomón	02:01:56
8744	Enrique Miguel	01:39:12	21386	Saioa Erle	02:01:56
8756	Guillermo Miguel	01:39:13	22529	Yaiza Rey	02:05:32
9119	Isidro Romero	01:39:47	23027	Unai Iturbe	02:07:55
9138	Mari Jose Goikoetxe.	01:39:49	23693	Antxon Recondo	02:10:58
9255	Aitor Cuartango	01:40:00	24906	Nerea Capdequi	02:21:24
9440	Joseba Erkizia	01:40:19	25013	Virgini Alaso	02:23:09
9445	Mikel Collantes	01:40:19			
9471	Jose Maria Conde	01:40:22			
9505	Alex de Lucas	01:40:25			
			URNIETA		
Postua	Izena	Denbora			
132	Igor Amantegi	01:11:21	301	Unai Lizeaga	01:14:14
190	Unai Martinez	01:12:23	463	Norman Cuenca	01:16:14
			1039	Xabier Zaldúa	01:19:59
			1253	Aitor Amigo	01:21:12
			1372	Julen Garmendia	01:21:54
			1738	Imanol Garcia	01:23:38
			1846	Mikel Garmendia	01:24:00
			1882	Iñaki Narbarte	01:24:09
			2122	Jon Labaka	01:25:02
			2166	Eñaut Ayerza	01:25:14
			2452	Raul Fradejas	01:26:11
			2935	Borja Rodriguez	01:27:39
			2939	Asier Paco	01:27:39
			3170	Oscar Pavon	01:28:14
			3290	Asier Murciego	01:28:33
			3446	Pedro Arroyo	01:28:53
			3638	Periko Juanikorena	01:29:18
			3758	Joxe Mari Ubillos	01:29:36
			4692	Vicente Benítez	01:31:45
			6296	Iosu Lopez	01:35:02
			6473	Jose Luis Romero	01:35:20
			6819	Ahetze Etxeberria	01:35:59
			6855	Margot Madina	01:36:03
			6958	Oier Egaña	01:36:14
			7111	Jonathan Lopez	01:36:31
			7733	John Sanchez	01:37:35
			8216	Uxue Salaberria	01:38:23
			8408	Bego Villas Miguel	01:38:42
			8891	Maria Salaverria	01:39:24
			9599	Jon Iraola Martinez	01:40:33
			10194	Vicente Carmona	01:41:28
			10203	Iñaki Baños	01:41:29
			10668	Jose Enrique Abad	01:42:17
			11665	Imanol Arrieta	01:43:50
			11820	Leire González	01:44:06
			12391	Asier Azpiazu	01:44:59
			13047	Miren Goikoetxea	01:46:11
			13707	Lorea Barkaiztegi	01:47:13
			13721	Patxi Cuenca	01:47:15
			13857	Asier Zubillaga	01:47:26
			15551	Benjamin Rodenas	01:50:09
			17223	Iván Hernández	01:53:07
			18948	Maite Beguiristain	01:56:18
			19605	Amara Martin	01:57:36
			19815	Jose Luis Lopez	01:58:00
			19843	Juanma Taracena	01:58:04
			20165	Idoia Esnaola	01:58:44
			20551	Enrique Campos	01:59:42
			25060	Lander Belaunzarán	02:24:00

Ikuskizuna Artalekun

ESKUBALOIA Urnieta Iñaki Mecanizados kadete B taldeko neskek ikuskizun paregabeaz gozatu zuten, joan zen igandean Artalekun jokatu zen Champions partidari. Kirol maila handiko lehia ikusteaz gain, Bidasoako jokalariekin argazkia ateratzeko aukera izan zuten. Urnietan eskubaloiak harrobi bikaina dauka, eta Bidasoa loraldi berria ezagutzen ari da.



URNIETA KE



Udaz geroztik, zaletu askoren topagune bilakatu da skate parkea. AIURRI

"Andoainen skate eskola sortzea polita litzateke"

ARKAITZ AMENABAR, PAULA BACO, AITOR MORALES ANDOINGO SKATE TALDEA
Arkaitz Amenabar, Paula Baco eta Aitor Morales dira AST Andoaingo skate taldearen sorreran parte hartu duten gazteetako hiru. Ilusio eta gogo biziz hasi dute proiektua

Mikel Arberas ANDOAIN
Udan zabaldu zuten Andoaingo kiroldegia atzekaldean kokatzen den skategunea. Proiektua aurkeztu zutenetik ikusmira handia sortu da andoaindarren artean; egun, nabaria da irristatzeko lekuak eduki duen arrakasta, egun osoan zehar jendegainezko egoten baita. Denbora tarte honetan, AST Andoaingo Skate Taldea elkarte sortu dute Arkaitz Amenabarrek, Paula Bacok eta Aitor Moralesek, beste lagun batzuekin batera.

Haur direnetik dabilta lau gurgipilen artean irrist egiten, leku batean zein bestean; "etxean hasi nintzen lehengusuak emandako skate batekin, ondoren beste leku batzuetara joaten hasi nintzen", aitortu du Amenabarrek. Skategunea jarri dutenetik gurgil gaineko afizioa nabarmenki handitu dela dirudi, uneoro haurrak, gazteak eta helduak monopatin eta patineteetan leku batetik bestera baitabiltza. Paula Bacok, berriz, monopatinean aritzeko afizioa

betidanik egon dela nabarmendu nahi izan du, "nire ustez zaletasuna beti egon da, baina futbola bezalako kirol handiek lekua kentzen diote geuk praktikatzeko dugun kirolari, eta, beraz, jendeak ez du skatearen berri izaten".
Argi dago gurgipilen kirol jardueraren maite dutela. Haur zirenetik praktikatzeko dute, modu batera edo bestera. Gaur egun, afizioa baino gehiago da eurentzako; "guztiok ditugu etapak, egunen batean skate gainean

egoteari utziko diot egoera ezberdinak direla eta, baina beti egongo da aukera gustatzen zaizun horrekin jarraitzeko", adierazi du Aitor Moralesek.
Ildo beretik jarraituz, skate parkean arratsalde asko igarotakoak dira Arkaitz eta Paula ere; egunak aurrera igaro ahal, gazteek gabezia asko sumatu dituzte. Gauzak horrela, lagun eta ezagunen artean elkarte moduko bat egitea otu zitzairen. "Neurriak hartu behar ziren. Esaterako, araudiaren kartelak falta ziren eta arratsaldeetan argitasun falta handia zegoen. Elkarte modura antolatzea pentsatu genuen, udaletxera eta beste leku batzuetara talde ofizial modura joan ahal izateko".

Skate gunearen gabeziak
AST sortzearen arrazoietako bat skate parkeak behar dituen hobeak eskatzea da. Ez daukate batere pozik azken emaitzarekin, eta oraindik bukatu gabeko gunetzat jotzen dute; "Gauza asko falta da. Adibidez, arratsaldeko 17:00etan ilunpetan aritzen gara, beste kirol gunetan, berriz, guztiak dute argia. Argitasuna ezinbestekoa da. Horrez gain, leku garbia nahi dugunez, edukiontziak jartzea ez legoke gaizki. Funtsezkoena hori dela iruditzen zaigu", adierazi du irmo Bacok. "Egia esan komunak ere beharko genituzke. Mutilek oso erraz egin ditzakete euren beharrak kanpoan, baina patinatzen dugun emakumezkoak ere bagaude", gehitu du.

Skate taldearen sorrera
Duela gutxi sortu dute AST: "Izenik eta talderik gabe inor ez ginela sentitzen genuen, soilik oihu egiten zuen taldea ginela. Horregatik, zerbait egin nahi genuen, gogoia ez zaigu falta eta baliabideak baditugu. Skategunek zerbait gehiago merezi du", adierazi du Paulak.
Taldearen sorrerarekin batera, kirol hau zabaltzeko ideiak ere eduki dituzte. Esaterako, larunbat honetarako Skate Eguna

"SKATE GUNEAN ZENBAIT GAUZA FALTA ZIRELA SUMATZEN GENUEN, NEURRIAK HARTU BEHAR ZIREN"

Skate eguna larunbatean

Azaroak 16, larunbata
12:00 Doako skate ikastaroa antolatzaileen eskutik.
14:30 "Game of skate" izeneko saioa egingo dute, eta, horren ostean, txapelketa.

antolatu dute AST-ek eta Holly Riders taldeak, Andoaingo zenbait laguntzaileekin batera. Besteak beste, Jart, Nemux, Urrats inprimategia eta Andoaingo Udala beste askoren artean. Amenabarrek larunbateko ekitaldiaren antolakuntza nola egin den azaldu du: "Skate Eguna antolatzeko lan banaketa egin da, bakoitzak zerbait egiten lagundu du. Horrez gain, guraso batzuk ere laguntzeko prest agertu dira. Hala ere, esku hartzeko prest dagoen edonork har dezake parte Andoaingo skate taldean".

Etorkizunera begira
Taldea berria da eta larunbatean lehenengo herri mailako ekitaldia egingo dute. Sare sozialak jorratu dituzte, lehenengo eskakizunak egin eta entzute handia lortu dute herrian; harago joatea pentsatzen hasita daudela dio Bacok: "Oso polita izango litzateke skate eskola moduko bat sortzea. Gaur egun, jendeak gurgil gaineko jardueraz zailtzat dauka eta, eskola asko ez denez, ez dute aintzat hartzen. Gaur egun beste edozein kirolletan izena emateko aukera asko daude, baina monopatinean irristatzen ikasi nahi izanez gero, zeure kabuz joan behar zara; normalizatua ez dagoenez, ez daude baliabideak. Horregatik, eskola moduko bat sortu nahiko genuke. Prozesua luzea da, eta etorkizunean lortzea espero dugu".

"SKATE ESKOLA SORTZEAREN PROZESUA LUZEA DA, BAINA EGUN BATEAN LORTUKO DUGU"

HITZORDUAK

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 14

URNIETA Argazki-erakusketa
"Soinuen begirada".
Abenduaren 2ra arte. Lekaio.

ANDOAIN Hitzaldia
"Indarkeria matxistaren errelatoaren garrantziak".
18:30, Bastero.

ANDOAIN Bilkura
Oroimenaren egunarekin bat eginez, Elkarbizik ekitaldia antolatu du.
19:00, Lopez de Lacalle parkea.

ANDOAIN Mendi Astea
Iker Karrera: "Iker.Mendia.Etxea".
20:00, Euskalduna MTren egoitza.

OSTIRALA 15

ANDOAIN Sari banaketa
Gazte Asteko kartelaren sariketa.
17:30, Gazte Lokala.

ANDOAIN Hitzaldia
"Gazteria eta jokoa" hitzaldia: Zer dago joko aretoen atzean?
19:00, Gaztetxea.

ANDOAIN Kontzertua
Dudik-P taldea.
19:00, Olloki taberna.

ANDOAIN Erakusketa
"Esencia eta existence".
19:00, irekiera ekitaldia. Bastero.

URNIETA Kontzertua
Alazne Maneroren omenez:
Musikariak eta dantzariak.
19:00, eliza.

URNIETA Antzerkia
"Lloviendo ranas", Ados teatroa.
Saroberen 25. urteurreneko zikloa.
19:00, Sarobe.

ANDOAIN Antzerkia
"Espacio disponible", Perigallo Teatro.
21:30, Bastero.

LARUNBATA 16

ANDOAIN Irteera
Txuri Urdin izotz jauregira irteera.
10:00, Gazte Lokala.



Eztabako ihesaldian ehunka presok parte hartu zuen. GUAIXE

ANDOAIN "Eztabako ihesaldia", Bastero Kulturgunean

Fermin Ezkietak "Los fugados del Fuerte de Ezkaba" (Pamiela) liburua aurkeztuko du, ihesaldiari buruzko makina bat agiri eta informazio jaso ostean. Mendi Asteko hitzaldian

zehar, Andoaingo Oroitzuzeko kideek Ezkabako gotorlekuan preso egon ziren andoaindarrei buruzko xehetasunak eskainiko dituzte.
20:00, Basteroko Ekitaldi aretoa.

ANDOAIN Mendi Astea
Gaztexoein batera, mendi ibilaldia: Leitzaran-Belabi-Onddolar-Villabona.
09:00, Euskalduna MTren egoitza.

ANDOAIN Bilera
Larramendi Bazkunak deitutako hausnarketa saioa: Euskaltzale gazte eta helduen iritzia ezagutu nahi da.
10:30, Basteroko ekitaldi aretoa.

URNIETA Bisitaldia
Adarrazpi gaztandegira bisitaldi gidatua, haur eta helduentzat.
Larunbatean eta igandean
11:00, Adarrazpi gaztandegia.

URNIETA Ospakizuna
Kulturarteko jaia. Tailerrak, janari dastaketa, musika tailerra, Tai Chi... xehetasun guztiak 10. orrialdean.
Egun osoan zehar, Egape.

URNIETA Kontzertua
Ainhoa Larrañaga eta Sara Zozaya.
Saroberen 25. urteurreneko zikloa.
19:30, Sarobe.

ANDOAIN Ekitaldi ezberdinak
Mus Txapelketa eta pintxopotea.
17:00, Gaztetxea.


Bakarriketa saioa: "40 urte eta aldapan behera niek".
22:30, Gaztetxea.

ZINEMA



ANDOAIN
Mientras dure la guerra
Lar, 16: 19:30, 22:00.
Ig, 17: 19:30.
Asti, 18: 19:30, 22:00.

El silencio de la ciudad blanca
Lar, 23: 19:30, 22:00.
Ig, 24: 17:00, 19:30.
Asti, 25: 19:30, 22:00.



SINOPSIS



Mientras dure la guerra
Zuzendaria, gidoia, musika: Karra Elejalde, Eduard Fernandez, Santi Prego, Patricia López, Inma Cuevas, Nathalie Poza,...
Herr.: Espainia (2019). **Generoa:** Drama. **Iraupena:** 107 min.

Urteko filma, askorentzat

Elejalde Unamunoren paperean ageri da, Espainiako 1936ko Gerraren baitan. Zuzendaria Francoren aldeko militarren eta intelektualaren arteko talka ezagunean oinarritu da. Indarra eta intelektualitatea aurrez aurre agertzen dira.

Zeresan handia eman duen filma izaten ari da, gai honetan ekidistantzia hartzea beti baita zaila. "Tesis", "Abre los ojos", "Los otros", "Mar adentro" edota "Agora" filmen ondoren, lan berria dakar Alejandro Amenabar ezagunak.

IGANDEA 17

ANDOAIN Mendi Astea
Mendi irteera eta babarruan jatea, Urrestillan.
09:00, Euskalduna MTren egoitza.

ANDOAIN Bertso saioa
Aitor Mendiluze, Aitor Sarriegi, Alaia Martin eta Eli Pagola.
12:00, Goiburuko ermita.

URNIETA Erakusketa
"Soinuenea", musika tresnak.
13:00, Bisitaldi gidatua. Lekaio.

ANDOAIN Bilkura
Bizilagunak eta Ongi Etorri eskolara ekimenen eskutik.
13:00, Zumea plaza.

ANDOAIN Haur antzerkia
"Ulisesen bidaia", Gorakada taldea.
17:00, Bastero.

ANDOAIN Kontzertua
Xabi (Señor No)ren saio akustikoa.
19:00, Gaztetxea.

URNIETA Antzerkia
"Xokolat". Taula gainean Rosa A. García eta Maitane Goñi aktoreak.
Saroberen 25. urteurreneko zikloa.
18:00, Sarobe. 3 euro.

Liburuzain bat zure bizitzan

Idoia Torregarai usurbildar umoregileak, espresuki Sutegi Liburutegirako prestaturiko umore-pieza bat eskainiko du "Jar ezazu liburuzain bat zure bizitzan" izenburupean. Saioa interaktiboa izango da, eta Liburutegiko erabiltzaile izan edo ez, gazte(txo) zein heldu...dibertimendua ziurtatuta dagoela adierazi digute.

Azaroak 18, astelehena. 19:00, Andoaingo Udal Liburutegian



Idoia Torregarai usurbildar umoregilea. AIURRI

ZORION AGURRAK



URNIETA
Igor
10 urte betetzen dituzu azaroaren 25ean.
Urte askuan eta muxu asko denon partetik.



ANDOAIN
Inge del Moral Eraso
Azaroaren 16an Inge 2 urte beteko ditu, muxu pila etxeko guztien partetik!



ANDOAIN
Eñaut
Azaroaren 18an Eñautek 9 urte beteko ditu. Egun ona pasa. Muxu handi bat etxeko partetik.

URTE
ASKOTARAKO ZORION ITZAZU LAGUNAK ETA SENITARTEKOAK

- www.aiurri.eus
- E-posta: diseinua@aiurri.eus
- Arantzibia 4-5, beheak. Andoain
- Whatsapp bidez: 619 163 537.

TELEFONO ZENBAKIAK

URNIETA
Bertan: 943 008 000.
Udaltzaingoa: 092 / 943 008 000.
Ertzaintza: 943 538 840.
Osasun zentroa: 943 006 680.

ANDOAIN
Ataria: 943 300 830.
Udaltzaingoa: 943 300 819.
Gizarte Zerbitzuak: 943 304 343.
Osasun zentroa: 943 006 670.

MERKATU TXIKIA

ESKAINTZAK
FRANTSES IRAKASLEA

Hizkuntza eskolako irakasleak frantseseko klaseak ematen ditu: EOI lortzeko, mintza-praktika etab.
693 692 823 - 665 719 827.

TXAKURRA

Lau hilabetetako arratoi txakur arra opari. Deitu: **634 44 13 53.**

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN
Larunbata 16 eta igandea 17
ZATARAIN: Elizondo, 6.
943 590 802 Andoain.

URNIETA
Larunbata 16 eta igandea 17
TANCO: Idiazabal, 39.
943 550 942 Urnieta.
GAUEZ: ALDABE. Hernani.



Ezeiza, Garcia eta Gorroño San Miguel elizako entsegu batean. AIURRI

Alazne Maneroren omenezko kontzertua

Aurrera Gure Ametsa dantza taldearen sustatzaile nagusi izandako Alazne Maneroren omenezko kontzertua eskainiko dute ostiral honetan, San Miguel elizan. Musikari lanetan arituko dira Haritz Ezeiza, Bittor Carrera eta Ana Belen Garcia

Xabier Lasa URNIETA
Dantza taldearen 20. urteurrena ospatzen ari dira, urte osoan zehar. Hainbat ekitaldi antolatu ditu, eta ostiraleko kontzertuak aparteko esanahia hartuko du bere kide guztientzat: Ekainaren 17an zendu zen Alazne Manerori gorazarre egingo diote, taldearen sorreratik bultzatzaile nekaezina izan zen heinean.

Dantza taldeko kide den Idoia Gorroñoren hitzetan, “Euskal musika eta dantza tradizionalen zale amorratua zen, eta bere ametsetako bat Euskal Herriko zenbait musika tresnekin estilo barroko kontzertua osatzea izan zen azken urtetan. Kontzertu hori antolatzea izan daiteke egin diezakioegun omenaldirik politena”.

Haritz Ezeiza, Bittor Carrera eta Ana Belen Garcia musikariak eskainiko dute kontzertua. Ezeiza hernaniarrak adierazi duenez, “Konposatzaile famatuak (Vivaldi, Haendel...) obrak transkribitu egin ditugu, txistura eta dultzainera erakartzeko. Pieza horiek ez ziren euskal tresnekin jotzeko sortu, eta beraz, egokitzen lana egin behar izan dugu”. Hiru musikariak koroan bertan arituko

Musika eta dantza saioa

Musikari eta dantzariak:

- Txistua, silbotea eta dultzaina: Haritz Ezeiza.
- Oboea: Bittor Carrera.
- Organoa: Ana B. Garcia.
- Dantzariak: Aurrera Gure Ametsa.

Errepertorioa:

- D. Cimarosa.
- T. Albinoni.
- G.F. Haendel.
- A. Vivaldi.

Dantza saioa:

- Agurra, Ezpata dantza eta Xalbadorren heriotzean.

Azaroak 15, ostirala
19:00. San Miguel eliza.

dira. Aipatu hirukotearen esku geratuko da emanaldiaren lehen zatia. Bigarren zatia, berriz, euskal dantzeekin aberastuko da. Aurrera Gure Ametsaren eskuatik, Alazne Maneroren omenez.

Martin Ugalde ipuin lehiaketako sari banaketa ekitaldia

Lehiaketara ehun eta berrogeita bat lan aurkeztu dira, eta epaimahaikideek balorazio baikorra egin dute

Mikel Arberas ANDOAIN
10-11 urtekoen mailan, lehen saria Ekain Zabaletak lortu zuen "Potty infernuan" ipuinarekin. Bigarren saria, berriz, Izaro Hernanik "Ilusioari eutsiz" ize-neko ipuinarekin.

12-13 urtekoen mailan, Maialen Garciaren "Malkoak Gernikan" ipuina irabazle izendatu zuten. Bigarren saria Inge Igarritzentzat izan zen "Sugarretatik ihesi iritsi zen laguna" ipuinarekin.

14-15 urtekoen mailan, Sara Villalbak lortu zuen lehen saria "Itzalak piztutako argia" ipuinarekin. 2. saria, Aner Alkainek "Peccata capitalia" ipuinarekin.

16-17 urtekoen mailan, azkenik, lehen saria Araitx Igerategi Lizarralde lortu zuen "Bultzatzen gaituzten bultzadak" ipuinarekin.

Bigarren saria Iñaki Mendiluce Ochoak lortu zuen "Yamama" ipuinarekin.

Ekitaldiaren argazki-bilduma eta bideoa ikusgai daude www.aiurri.eus webgunean.



Asteartean egin zuten aurtengo edizioaren sari banaketa ekitaldia. AIURRI

Arnasguneak euskarari hauspoa ematen

Arnasguneek euskararen biziberritzean duten garrantzia azpimarratzeko **Arnasa Gara** ekimenaren aurkezpen ekitaldiak egingo dira Euskal Herrian zehar abendura arte.

Kartzela serie digitalaren aurre-estreinaldia ikusteko eta aktoreekin solasteko aukera izango dute bertaratzen direnek.

URNIETA GOIBURU AUZOA

AURKEZPEN EKITALDIA

+ *Mokadua*

2019 | AZAROAK 23

19:00

XOXOKAKO ATERPEAN

DATA	HERRIA	DATA	HERRIA
Urriak 3	AZPEITIA	Azaroak 22	ADUNA
Urriak 4	OREXA	Azaroak 23	GOIZUETA
Urriak 24	ALTZO	Azaroak 23	URNIETA (Goiburu auzoa)
Urriak 25	AJANGIZ	Azaroak 24	LEKEITIO
Urriak 26	LESAKA	Azaroak 29	ZERAIN
Urriak 26	ITZIAR	Azaroak 29	ARAMAIO
Azaroak 8	DIMA	Azaroak 30	LEINTZ GATZAGA
Azaroak 9	ZEANURI	Abenduak 1	MARKINA-XEMEIN
Azaroak 15	ABALTZISKETA	Abenduak 3	BERMEO
Azaroak 16	LEITZA	Abenduak 13	AIA
Azaroak 17	ETXARRI ARANATZ	Zehazteke	Ipar Euskal Herrian



AR Na sa Ga Ra

www.arnasagara.eus

